



Ekologia politikoa

Ideologia berdearen genesisia, teoria eta praxia

■ Florent Macellesi

I R I T Z I A

• Iñaki Barcena (Marcellesiren artikuluarari egindako kritika)

Ekologia politikoa

Ideologia berdea: sorreratik gaurdainoko ibilbidea

Bizi dugun krisi ekologiko latza begien aurrean dugu, baita horren ondorioz azken hamarkadetan garatu den mugimendu ekologista sakona ere. Eta ekologia politikoarekin, zein neurritan ez ote da sortzen ari ideologia berri bat? Artikulu honetan galdera hori erantzuten saiatu da egilea. Mugimendu honen sustraiak 60ko hamarkadan kokatu ditu eta berau batez ere produktibismoa/antiproduktibismoa dialektikaren inguruan egituratzen da. Marcellesiren ustez, ardatz berri honek orain arte ezker/eskuin dialektikak emandako ikuspegia berraztertzea eskatzen du. LARRUN honen azken bi orrialdeetako artikuluan, Iñaki Barcenak Marcellesiren lanaren kritika egin du (*Ecología política* aldizkaritik hartua dago. Marcellesiren lana, aldiz, *Cuadernos Bakeaz*-eko 85. zenbakian argitaratu zen).

■ Florent Marcellesi

Genesisi ekologista

Politikak maitatzeko boterea eta Lur espazio-ontzian bat eginda sentitzeko boterea esan nahi duen mugimendua...

Petra Kelly

XIX. ETA XX. MENDEETAKO ideologia nagusiekin alderatuta, ekologia politikoa ideologia gaztetzat jo dezakegu. Atal honetan ikusiko dugunez, lehen Industria Iraultzatik natura babesteko mugimenduek bide luzea egin duten arren, ekologismoa 1960ko hamarkadan jaio zen ideologia moduan eta funtsezko infle-

xio puntua 1968ko gertakariekin batera izan zuen. Izan ere, XIX. mendeko naturaren babesleak gogoeta estetikotan geratu ziren, iristear zegoen krisialdi ekologikoaren oinarri estrukturala kritikatu gabe, eta ekologismoak, aldiz, «progresismoari» buruzko galderak egiten ditu, kritikatu gabeko postulatu gisa eta gizarte

industrial modernoen jarreraren legitimazio ia tautologiko gisa. "Giza biziraupen" kontzeptua sartzean, ekologia politikoak gure gizarte industrialen eta Mendebaldeko kulturaren funtzionamenduaren eta balioen analisi kritikoa abiatu zuen. Multzo ideologiko holistikoa eta koherentea sor dadin, industrialismoaren eta modernotasunaren kritika horrek naturaren ikusmolde erromantikoa eta kosmobisio kartesiar eta determinista gainditu behar ditu. Horrez gain, mugimendu aglutinatzailea izateko sorrera mito batzuk behar ditu, mito horien erreferentziek eta balioek familia ekologistako korronteak substratu komun batekin identifikatzea ahalbidetu dezaten.

■ Estetikatik biziraupenera

Natura babestearen aldeko mugimendu antolatuen lehen arrastoak XIX. mendearen bigarren erdian, Ingalaterran, eta hedaturaz britainiar inperio osoan, aurki daitezke. Ez da harrizkoa industrializazio jaioberriak natura neurritz kanpo ustiatzeak natura zientziak garatzeko espazio egokia sorraraztea. Dena den, 1960tik aurrera mugimendu ekologistaren ezaugarri nagusietakoa izaera sozial eraldatzailea bada ere, garai hartan "natura babestea" kontzeptuak batez ere balio estetiko eta erromantikoak hartzen zituen aintzat. Adibidez, 1840-1850 urteetan naturaren historia-ko hainbat elkarte landa eremuak aztertzen eta behatzen aritu ziren, eta paisaien estetika babesteko legeak egin zituzten. Hala, paisaien babesaren ezaugarri nagusietakoa parke naturalak sortzea izan zen, hala nola Yellowstonekoa AEBetan (1872), britainiar inperioko hainbat parke (1), Europako lehen parke nazionala izendatzea Suitzan 1914an, eta Covadonga-ko Parke Nazionalaren izendapena Espainian 1917an. Halaber, XIX. mendearen amaieran animalien tratu txarren aurkako borroka kontserbazionistak zeregin esanguratsua izan zuen, bereziki emakumezkoen modan erabiltzen ziren lumak lortzeko burutzen zituzten hegaztien sarraskien aurka.

Berehala, errebindikazio horiek gizarte modernoaren, bere balio intrintsekoen eta substratu industrialaren aurkakoak bihurtu ziren. Zenbait sozialista minoritarioren, esaterako, John Stuart Mill-en edo William Morris-en ekarpenak kenduta, hazkundearen bilaketan eta natura menperatzean oinarritutako tresnek

Florent Marcellesi



Bide, ubide eta portuetako ingeniaria (Lyongo Zientzia Aplikatuaren Institutua) eta hirigilea da (Parisko Zientzia Politikotako Institutua). Nazioarteko Lan-

kidetzan aditua da (Bilboko Hegoa Institutuko graduondoa) eta jasangarritasuna eta hiritar partaide-tzaren eremuan egindako lanez gain, euskal, espainiar, frantziar eta europar mugimendu berdeetan sutsu ari da lanean. Bakeaz-eko kide da, *EcoRev* Frantziako aldizkari ekologikoaren erredakzio batzordeko eta *EcoPolitica* zentroaren koordinatzailea. Hainbat aldizkaritan artikulu ugari argitaratu ditu, honakoak besteak beste: "André Gorz bizi da, borroka ekologikoak aurrera darrai" (*Ecología Política*, 2007). "Garapena, dekrezimendua eta ekonomia berdea" (*Espainia eta Latinoamerikarako The Ecologist*, 2007) eta "Nicholas Georgescu-Roegen, bioekonomiaren aita" (*Ecología Política*, 2008).

erantzun zieten krisialdi guztiei. Adibidez, Dust Bowl Depresio Handiaren garaiko AEBetako hondamen ekologiko nagusia izan zen. Bi milioi pertsonatik gorako migrazioa eragiteaz gain, hauts ekaitz horiek agerian utzi zuten errentagarritasuna eta etengabeko lehia baino lortu nahi ez duten nekazaritza jarduera desegokiek (hala nola neurritz kanpoko ustiaketa, zelaiak erretzea eta abar) oreka ekologikoei eragiten dietela. Eremu horretako oreka ekologikoa lehenera-

tzeko, gobernu federalak zenbait doikuntza egin zituen ingurumenean (2), baina, aldi berean, herrialdea New Deal politikan barneratu zuen eta politika horrek, nagusiki, enplegua, ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko apustua egin zuen, inbertsio publikoetan, azpiegitura handietan eta baliabide naturalak menperatzean oinarritutako politika keynesiarraren bidez. Era berean, Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean Marshall plana abiatu zen, Europaren berreraikuntza materiala bultzatzeko eta Europar bigarren Industria Iraultza abian jartzeko, masa ekoizpenaren eta kontsumoaren ikusmolde fordistaren bidez. (Viveret, 2002: 17). Dialektika garapenzalearen testuinguruan eta bloke kapitalista eta komunistaren arteko lehia geopolitiko bizian, plan hori «aurrerapenaren» ideia-aren aldeko inoizko ahaleginik handienaren erakusle izan zen. *Hazkunderaren etapak* lanean, eta ikuspegi determinista garbitik, Rostow-k edozein ekonomia izan beharko lituzkeen faseak bereizi zituen: gizarte tradizionalak «**hazten hastea**» beste erremediorik ez dute «**heldutasuneranzko aurrerapenaren**» bidean barneratzeko eta, azkenean, «**masa kontsumoaren aroan**» sartzeko (1961).

Mendebaldeko arrazionaltasun ekonomikoa «**sinesmen ia erlijioso**» bihurtu zen testuinguru honetan (Grinevald, 1996: 30), «naturaren babesa» modernotasuna goratzen duen ideologia nagusiaz kanpoko doikuntza moduan eta ingurune naturalaren eta basabizitzaren estetika eta kontserbazioaren aldeko gurutza gisa planteatzen da. 1960ko hamarkada inguruan, ekologismo jaioberriak bira kopernikarra eman zuen arreta giza ingurunean jartzeko, gai erabat berri baten inguruan: giza espeziearen biziraupena. Ikuspegi kontserbazionistek ez bezala, *biziraupen* kontzeptuak krisialdi eta iragankortasun sentipenak eta biosferaren parte den gizakiaren kontzepzio berria ekarri zituen. *Udaberrisila* lan polemikoan, Rachel Carson-ek gizakiaren eta ingurumenaren etengabeko elkarreragina islatu zuen. Diskurtso zientifikoa erabiliz, berehalako nahiz epe luzeko ondorioak jasan gabe, hortik irten ezin duela —eta naturaren gaineko nagusitasuna bermatu ezin duela— gogorazi zuen (Villalba, 2005). Nicholas Georgescu-Roegen bioekonomiaren aitak are modu gordin eta polemikoagoan laburbildu zuen: «**Auto bat ekoizten dugun bakoitzean, ordainetan etorkizuneko bizi kopurua murrizten ari gara**» (1996).

Hain zuzen, bioekonomiak zientzia ekonomia modernoak eragindako eta Newton eta Laplace-ren paradigma mekanizistan eraikitako arrazionaltasun modernoaren oinarri egiten die eraso. Bestela esanda, gure munduak teoria eta fenomeno atemporalak ditu oinarri, Carnot, Causius eta Darwinen aurkikuntza zientifikoak aintzat hartzen ez dituztenak. Aurkikuntza horiek funtsezko kontzeptu berri bat ekarri zuten: «atzerazintasuna» (Georgescu-Roegen, 1996: 352-353). Teoria ekonomikoak ez du termodinamikaren iraultza aintzat hartu eta XIX. mendearen hasieran jarraitzen du (3). Horrek esan nahi du giza jarduerak «behe entropia»ren lasaikeria atzerazintaz elikatuta eta horren kontura garatzen direla, eta horrek gizarte industrialen eta, izaera «exosomatikoak» (4) eraginda, giza espezie osoaren muga fisikoa adierazten du (Marcellesi, 2008). Eremu etikoan eta krisialdi ekologikoa dela eta, Xabier Etxeberriak —Mendebaldeko aro modernoan Descartes lanaren eskutik sortu zen— «antropozentrismo teknokratikotik» aldentzea eskatzen du; antropozentrismo teknokratikoan guk menperatzeko, gure probetxurako, proposatutako objektua da natura, gizakion zorion iturri den teknozientziari esker (1994: 2). Aurrerapenaren eta teknika-aren ikuspegi deterministaren aurka, kulturaren eta naturaren dialektika eta lehia klasikoa gainditu behar da, gizakien eta naturaren arteko «aliantza berriaren» bidez; aliantza horren arabera, gizarteak ez dira ekosistematik at bizi, naturaren munduaren parte dira eta naturarekin harreman bizia, erretroaktiboa eta dinamikoa dute (Prigogine y Stengers, 1983).

«Gizakia otsoa da gizakiarentzat», baina baita epe labur zein luzean gizakiaren ugalketarako ezinbestekoak diren naturarentzat eta biodibertsitatearentzat ere. Vladimir Vernadsky-ren kontzeptua gogora ekarri (5), gizakia «planetaren indar geologiko» bihurtu da, modernotasun eta aurrerapen kontzeptu ukiezinen arabera, bere burua desagertzeko arriskuan jartzen duena, eta horrek pesimismo harrigarria dakarkio Georgescu-Roegen-eri: «**Beharbada gizakiaren patua bizitza laburra, bortitza, ernagarria eta bitxia da, bizitza luze, begetatibo eta monotonoaren orde**» (1996). Estilo katastrofista hau liturgia eta erretorika ekologistak berezkoa izan arren, Carlson, Illich, Georgescu-Roegen, Dumont eta abarren irakaspenak itxaropenez, etorkizun hobe baten sinesmenez betetako mugimen-

duaren funtsa izango dira eta horren paradigma 1968. urtea izango da.

■ 1968 eta ekologismoaren sorrerako beste mito batzuk

Borroka ekologistan, 1968. urteak inflexio puntua edo —biosferaren azterketarako paradigma mekanizista baino egokiagoa den kaosaren teoriaren terminologia erabiliz— puntu kritikoa markatu zuen. Planetaren hainbat puntutan, gazteen altxamenduak profil psikologiko anitzeko masa heterogeneoak osatuta zeuden: bakezaleak, feministak, artistak, libertarioak, ingurumenaren aldeko ekintzaileak edo aurrerapen mugagabe, kontsumista, hierarkiko eta patriarkalaren kulturaren aurka eta auto-kudeaketaren alde zeudenak. Autonomiaren aldeko mugimendu sorta horretan, landa eremua berriro deskubritu zuten militanteak, “ekologia” eta “komunitate” hitzak otu zituztenak eta jarduera eta teknika alternatiboen bidez lurrera itzultzen hasi zirenak nabarmendu ziren. «1968ko munduko iraultza» honek, Wallersteinen kontzeptuaren arabera, ezkerreko mugimendu tradizionalakiko haustura sakona ekarri zuen eta grina eraldatzaile berrien sorrera eragin zuen. Errepresioa hasi zen, eta Mexikon eta Pragan bereziki odoltsua izan zen; langile mugimenduak —nagusiki gizonezkoek osatua eta funtzionamendu bertikala zuena— hasieran ez zuen emantzipazioaren aldeko altxamendu hauen berri izan, baina berehala fabriketan grebak hasi ziren eta langileek protestekin bat egin zuten. Horregatik, dio Gorz-ek sozialismoak ez dituela kapitalismoaren emaitzak hobetuko, aldi berean komunitateen eta pertsonen autonomiaren alde egiten ez badu: «**Autonomia hori hedatzea eskaera ekologistaren erdigunean dago, norbanakoek beren erremintekin, kontsumoarekin, gorputzarekin, naturarekin duten harremanean subertsioa dakar**» (1982).

1968ko maiatzeko lider izan zen eta gaur egun Europako mugimendu berdearen buru den Daniel Cohn-Bendit-en arabera, 1968ko iraultza ezin da jo mugimendu berdetzat, baina etorkizunean ekologismoa haztea ahalbidetuko zuten haziak eta balioak ekarri zituen. Analisi horri jarraiki, ekologia politikoa «**1968ko ideien luzapen**» gisa sortu zen (Gorz,

2008a: 93) eta garai horretako «**kontzientzia politiko-en, zalantza existenzialaren iraultzaren**» hartzaile nagusietakoa izan zen (Cohn-Bendit, 2008). Zalantza existenzial horrek, «Ez ezazue lanik egin!» edo «Hutsarterik gabe bizi, oztoporik gabe gozatu» lelo-en bidez, *gozamenaren* eta *plazeraren* garrantzia ekarri zuen gogora, *lan-enplegu* alienatzailean itotako gizarte kontserbadoreen aurka. Era berean, artea eta kultura *in fine* lehenetsi behar zirela pentsatzen zuen Keynes-en urratsei segika, Georgescu-Roegenek zera dio: «**Prozesu [ekonomikoaren] benetako produktua fluxu ez-materiala da: bizitzaren plazera**» (1996), eta Cohn-Bendit-ek, berriz, aldaketa politikoa «**ñuntsezkoa den une historiko batean parte hartzearen plazeraren**» bidez teorizatzen du (2000: 60).

Hala, 1968. urtea ekologia politikoaren sorrerako mitoetako bat da, imaginario kolektibo ekologista eraikitzeke ezinbesteko baldintza. Imaginario hori mugimendu berde politikoaren hainbat sorrera testuetan islatzen da. Adibidez, munduko «**laguntasunez, baikortasunez, umore onez eta prozesuan gozatzea ahaztu gabe**» antolatzeke beharra azpimarratzen dute (de Canberrako Gutuna, 2001: 10.11 puntua). Bitartean, printzipio gidarrietan, Europako Alderdi Berdeak dio ingurumenaren aldeko mugimenduen eta mugimendu antinuklearren, ekintzaile bakezaleen, feministen, giza eskubideen aldekoen, Ipar-Hego eremukoen eta pobreziaaren aurkakoen multzo heterogeneoan duela jatorria.

1968. urtea eta gero, kontzientzia ekologikoa are gehiago indartu zen “mitologia ekologista” gisa izendatu dezakegunaren parte bilakatu ziren zenbait gertakariri esker. Masa komunikabide berriek (nagusiki, telebistak) hedatutako zenbait hondamen ekologikoz gain, eta 1973ko eta 1979ko petrolio-istripuen ondoren, 1985ean, Frantziako zerbitzu sekretuek Rainbow Warrior Greenpeace-ren itsasontzia hondoratu zuten eta gertakari hark gogor astindu zuen mundua eta, bereziki, ekologismoa. Mururoako atoloiko (Ozeano Barea) proba nuklearren aurkako protestak saihesteko estatu batek burututako atentatu honek agerian utzi zuen energia nuklear zibilaren nahiz militarren inposaketa teknokratikoan demokraziarik eta gardentasunik ez zela, baita kriminalen zigorgabetasuna nabarmendu ere. Urtebete eskas geroago, 1986ko apirilean, Txernobileko hondamendia gertatu zen; eragin

handia izan zuen eta imaginario kolektibo ekologista indartu zuen, arazo ekologikoen eta horien ondorio sozialen globalizazioa eta mugarik eza agerian utzi baitzuen. 1970eko hamarkadan abiatu zen nuklearren aurkako borroka sekula baino estimulu handiagoa izan zen mugimendu berdearentzat eta mugimenduaren errebindikazioetan eta historial aktibistan toki nagusietakoa hartu zuen, Joaquín Fernándezek laburbildu bezala:

Beste ezerk ez du lortu halako arbuio zabala eta beste ezerk ez dio hainbeste lagundu Espainiako ekologismoaren antolakuntza kohesioari, espainiar ekologismoaren historia, neurri handi batean, protesta nuklearraren historia baita (1999: 99)

Krisialdi ekologikoaren izaera transnazionalaren adibidetzat, pobrezia eta segurtasunik ezaren eragiletzat eta aurrerapen teknologiko itsuan oinarritutako gizarte autoritarioaren paradigmatzat jotzen denez, energia nuklearraren aurkako borroka ekologia politikoaren identitatearen identifikazio faktorea eta identitate ikurra izan da gaur arte. Gartonek, munduko berrogeita hamar alderdi berde baino gehiagoren programak aztertu ondoren, «energia nuklearrari uko egitea» lehentasun iraunkorra dela nabarmentzen du —adostasun bakarra Europako eta munduko panorama politikoan— eta «erregai fosilak ordezkatzeko energia nuklearra onar litekeela, zeharka bada ere, esaten duen programarik [berderik] ez dagoela» dio (2008: 109).

Ekologia politikoa: ideologia globala eta eraldatzailea

Mundu mugatuan hazkunde esponentzialak betirako iraun dezakeela uste duena eroa edo ekonomista da.

Kenneth Boulding

Imaginario kolektiboarentzat ezinbesteko erreferentzia puntuak markatzen dituzten literatura oparoan eta gertakizunetan oinarrituta, ekologia politikoak, teoriaran zein praktikan, gizarte industrialaren alternatiba globala bihurtzea du xede, hau da, pentsamendu kritiko, global eta eraldatzailea bihurtzea. 1989an Berlingo harresia bota zutenean, nabarmen geratu zen —Txernobil eta sobietar blokearen gainerako eskandaluen ondoren, beharrezkoa baldin bazen— benetan existitzen zen sozialismoa ez zela gai demokrazia, justizia soziala eta jasagarritasun ekologikoa eskaintzeko. Bestalde, begiradak egungo sistema sozioekonomiko hegemonikoan, sistema kapitalistan biltzen dira, garaipen geopolitikoa lortu arren (alderdi askotan garaipen pirrikoa izan bazen ere —ikus Wallerstein, 2002—) ez baita ingurumenaren hondamenaren hazkundera eta desoreka sozialak konpontzeko gai. Baina oraindik: 1980ko hamarkadatik aurrera ezarritako politika neoliberal-

lek krisialdi ekologiko eta sozialak areagotzen dituzte eta ez dute *kapitalismo berdearen* aukera erraz ikusten uzten. Azken mendeetako bi sistema nagusi antagonikoen aurrean (biak gizarte industrialaren motor), kapitalismo-komunismo dikotomiaz kanpo produktibismoa errefusatzeari oinarritzen den hirugarren bide ekologista indarra hartzen ari da, hau da, bi blokeengandik bereizita dagoen eta horien menpe ez dagoen ideologia berria, helburu garbia duena: gizartea sakonki aldatzea.

■ Ekologia politikoa antiproduktibismo gisa

Hazkundera, «ekonomizismoa» eta teknokrazia kritikatzat, ekologistak apurka «gizartearen deskribapen analitikoaren» oinarriak (Dobson, 1997: 23) ezartzen eta beren teoria politikoa harilkatzen ari dira, logika

propioa, produktibismoa, lortu duen sistemaren aurka. Produktibismoa hiru logika nagusi interpretatzean sortzen den sistema ebolutibo eta koherente gisa defini dezakegu: hazkundera lehenetsuz bilatzea, eraginkortasun ekonomikoa eta arrazionaltasun instrumentala. Hiru elementuok askotariko eraginak dituzte egitura sozialetan eta eguneroko bizitzan (Degans, 1984: 17).

Egoera honetan, hazkunderaren lehenetsuzko bilaketa sistema produktibisten zutabe izatea ekologia politikoaren etengabeko jomugetakoko bat da. Hazkundera –ekoizpenak eta kontsumoak aldi jakin batean duten igoeran oinarritzen dena– ongizatearen motor eta berez ona den helburu bihurtzen duen postulatuaren aurka dago ekologia politikoa:

Iraganean, ekoizpena onuratzat jotzen zen bere horretan. Baina ekoizpenak soilik azken aldian ikusi diren ordainak ere baditu. Produktzioak lehengaien erreserba mugatuak murrizten ditu derrigorrez eta ekosistemen ahalmena, hau ere mugatua, ekoizpen prozesuen ondorioz sortzen diren hondakinez betetzen du. [...] Egungo ekoizpenak hazten jarraitzen du, etorkizuneko ekoizpenaren eta gero eta mehatxatuagoa dagoen ingurumen ahularen kaltetan. (Georgescu-Roegen, Boulding eta Daly, Riechmann-en, 1995: 11)

Egile hauek bezalaxe, errealitate setatsiak «gure sistema mugatua izatea» (ibidem) eragiten duela gogorarazi dezakegu. 1972an Erromako Klubeko lehen txostenak zioen moduan, «hazkunderaren mugek» eragindako munduko sistemaren kolapsoaren arriskupean gaude. Beste modu batera esanda, oparotasuna gurtzea eta «Lur ontziaren» mugak ez dira bateragarriak. Korrante ortodoxo klasiko eta neoklasikoentzat «zero hazkundera» aurrerapenaren aurkako heresia izan arren, Lurra mugak dauzka eta ezin du jasan planetaren birsortze maila kritikoren eta karga ahalmenaren gainetik biodibertsitatea hondatu, klimaren aldaketa eragin edo baliabide naturalak suntsituko dituen garapen ekonomikoa (7). Hortaz, produktibismoa mugagabeko hazkunde ekonomikoren eta definizioz baliabide eta ahalmen mugatuak dituen planetaren arteko paradoxa gisa eraikitzen da (8). Beraz, Lurra eta bizitzaren oinarriak suntsitzea neurritz kanpoko metaketa,

errentagarritasuna epe laburrean maximizatzea eta oreka ekologikoak hausten dituen teknika erabiltzea eskatzen duen ekoizpen ereduaren ondorio gisa ulertu behar dira (Gorz, 1982).

Bestalde, metatze-hazkunde hedakorren logika eraginkortasun ekonomikoren lehenetsunari lotuta dago. Logika honek, oroz gain, aurreikuspena, mekanizazioa eta arrazionaltasuna eskatzen ditu eta, ondorioz, lanaren banaketa tekniko nabarmenagoa, kontzentrazioa handiagoa, jakintzaren eta boterearen hierarkia areagotzea eta bizitzaren alderdi guztiak gehiago instituzionalizatzea dakar. Horrenbestez, sistema produktibistan «guztia lehiarako, kontsumorako eta instituzionalizaziorako gai bihurtzen da [...], izakiak eta gauzak esleitutako funtzioetara mugatu eta helburu jakinei lotutako tresnatzat jotzen ditugulako» (Degans, 1984: 17). Dena den, Ivan Illich-en aburuz, «arrazionaltasun instrumentala» bilatzeak tresna esklabo bihurtzen duen aparatu alienatzaile eta kaltegarri bihurtzen du: ataria igarotzean, erreminta zerbitzari izatetik despota izatera pasatzen da, eta gure gizarteetako erakunde handiak beren funtzionamendu propioarentzat oztopo bihurtzen dira. Are gehiago: teoriarari ekologistentzat, instituzio horien funtzioa gizakien kontrola eta gero eta ugariagoa den pobreen masaren eta gero eta aberatsagoa den elitearen arteko aldearen esklabo izatea legitimatzea da. Dagoeneko, ez hezkuntza, ez medikuntza eta ez ekoizpena ez daude «giza bizikidetzaren» neurriera eginak (Villalba, 2005). Antiproduktibismoaren aitzindari Ellul-ek «système technicien» delakoaren bidez islatu zuen hori, hau da, sistema bihurtutako teknika gure gizartearen ezauzgarri nagusizat eta modernotasuna interpretatzeko giltzarri nagusizat jo zuen: «Egun teknika bere zerbitzurako erabiltzen duen gizakia, benetan teknika zerbitzatzan ari da» (Ellul, 1977: 360). Gorz-entzat, teknikaren kritika hau, ekologia politikoaren oinarri eta gizakien eta naturaren menpekotasunaren sinbolo dena, «askapenaren etikaren funtsezko dimentsio» bihurtzen da (2006).

Hazkunde ekonomikoa eta eraginkortasun ekonomikoa eta teknologikoa oinarritu arren, sistema produktibistak ekosistemen eta energia kontsumoaren gaineko presioa areagotzen du. Ikuspuntu ekologistatik, aurrerapen teknikoari eta eraginkortasun ekonomikoa esker produktu unitate bakoitzak

behar duen baliabide natural kantitatea murrizten dela dioen teoria ahultzen du faktore horrek. Horrez gain, pobreen eta aberatsen arteko aldea etengabe handitzeak hazkunde ekonomikoa desorekak murrizteko eta kohesio soziala indartzeko gai dela dioen teoria bertan behera uzten du. Akats teoriko hauek gaur egun «nazioaren aberastasuna» kalkulatzeko Barne Produktu Gordina baliatzen gautzen dira: tresna partziala da, aberastasun produktibo deritzenak soilik batzen dituena «lan produktiboaren» bidez— eta, baliabide naturalak kaltetzen eta agortzen direla kontuan ez hartzeaz gain, ondasun sozial eta ekologikoak aintzat hartzen ez dituen (Marcellesi, 2007a). Ekologismoak «**ekonomistek nazioen arakasta eta ongizate ekonomikoa neurtzeko erabiltzen zituzten tresnak**» aldatzeko (Carpintero, 1999: 158) eta XIX. mendetik hartutako aberastasun, erabilgarritasun eta balio kontzeptuak ezinbestean teorikoki berritzeko beharra aldarrikatzen du. (9)

Illichek laburbiltzen duenez, «**ekonomia osoa hobeto-izatea lortzeko bideratzea ongizatearen oztoporik handiena da**» (2006). Beraz, metaketa neurritz kanpo baloratzea eta ondasun materialak ugaritzeak zorientasuna handitzen duela dioen ideia, ekologisten ustez, gizakiaren kontzepzio arriskutsua da, gizakien beren biziraupenerako. Mundu ekologistan, azpisistema batek ezin du barne hartzen duen sistema arautu (ikus bioekonomiaren eskola: Georgescu-Roegen AEBetan, José Manuel Naredo eta Joan Martínez Alier Espainian edo René Passet Frantzian). Beste modu batean esanda, sistema biziaren arautzea ezin da egin antolaketa maila txikiago batean, helburu propioen arabera jarduten duen ekonomian oinarrituta. Ekonomia gizartearen osagaietako bat da, biosferaren zati bat. Hortaz, merkatuak —ekonomiaren zati bat baino ez dena— ezin die bere funtzionatzeko modua inposatu gainerako mailei. Sistema ekologistan soilik helburu globalek kontrolatutako antolakuntza moduek dute legitimotasuna.

■ **Ekologia politikoa zentzua bilatzeko modu gisa**

Deskribatutako sistema produktibistaren aurrean, ekologiak, ideologia gisa, «bere gizarte modu bere-

zia aldarrikatzen du», non ekoizpenaren eta kontsumoaren orientabidearen eta helburuen afera (hau da, funtsean, 1968ko afera existentziala) gune nagusietakoa baita. Hala, ekologia jatorriz diziplina zientifikoa zen (10), baina «**giza espeziaren ekologia ez da gainerako animalia espezieen ekologiaren berdina**», gizakiak —gainerako espezieak ez bezala—

«**animalia sozialak izateaz gain animalia politikoak ere baitira**» (Lipietz, 2000a). Zientzia gisa sortutako ekologia pentsamendu politiko bihurtzean, egiten dugunaren zentzua agertu zen, eta horrek hainbat galdera dakartza berekin: gure gizarte antolakuntzak, ekoizteko moduak, kontsumitzeko erak, nola aldatzen du ingurumena? Nola ulertu behar da eragile horien konbinazioa, interpretazioa ingurumenean duten eraginari dagokionez? Aldaketa horiek norbanakoei mesede egiten die ala ez? (ibidem). Beste modu batera esanda, ekologia politikoa, *oikos* (etxea) eta *logos* (azterketa) izateaz gain, *polis* ere bada, hau da, herritarrak eztabaidatu eta erabakiak hartzen dituzten tokia. Beraz, ekologia politikoa «**etxean egiten dugunaren zentzuari buruz erabakitzen den tokia da**» (Lipietz, 2000b).

Definizio horri jarraiki, ekologia politikoak galdera sakonak egiten dizkie gizarte industrialei, (post)fordistei nahiz planifikazio zentralizatua duten ekonomiei —zertarako? zergatik? nola ekoizten ari gara?—, Roustang-ek hala laburbiltzen duena:

Kapitalistak/langileak aurkakotasuna dagoeneko ez da funtsezkoa. Izan ere, ekoizpena kapitalaren eta lanaren artean berdin banatuko dela suposatuta ere, ekoizpenaren orientazioaren afera ezinbestekoa litzateke.(2003: 125)

Horrenbestez, ekoizpenaren orientazioaren aferari erantzuteko, ekologia politikoak gizartearen, nire etorkizunaren, gizakien arteko harremanen, gizakien eta inguru naturalaren arteko harremanen eta giza jarduera produktiboen ikuspegi globala proposatu behar du. Gaur egun, ekologismoaren ikuspuntutik, ezin da era berean humanoa (bidezkoa) eta jasangarria ez den ekoizpen eta kontsumo eredu batean pentsatu. Ekologismoa kritikatzeko duten ahotsek dioten bezala, zertarako balio du jasangarritasun ekologikoak, bitartean ondasun naturalak eta produktiboak elitearen eskuetan gera-

tzen badira, desorekak, goseteak, gerrak, bidegabekeriak eta abar eraginez? Baina galdera irauli dezakegu: zer balio du gizarte baten eta gizarte horretako kideen ongizateak, mundu horrek etorkizuneko belaunaldiei bideragarritasuna bermatzen ez badie eta giza espezieak baldintza duinetan biziraungo duela ziurtatzen ez badu? Zalantzarik gabe, planetaren, belaunaldien arteko eta espezieen arteko solidaritate kontzeptuak mahai gainean jartzen dituztenean, ekologia politikoak galdera polemikoak ekartzen ditu, batez ere «aurrerakoitzat» jo ohi diren mugimendu sozial eta politikoentzat. Bakoitzak bere buruari ipintzen dizkion etiketez haratago, aurrerakoitzat jo al daiteke solidaritate kontzeptu berriak kontuan hartzen ez dituen eta postulatu produktibistetan oinarritutako logika ideologikoak dituen ideologia?

Bestalde, sistema koherente baten –produktibismoaren– aurka borrokatzen duen eta sistema horren ohiturak, balioak eta kodeak aldatu nahi dituen ekologia politikoa ezin da ulertu beste ideologia baten ingurumen gehigarri moduan. Gizartearen bihotzari eta esparru guztiei eragiten die zuzenean, jasangarritasun ekologia eta justizia soziala lotzen dituelako, maila lokalean nahiz mundu mailan. Edozein ingurumen korrontetik bereizten duen aldaketa sozialaren oinarritzko ideia du. Hala, Lipietzek –Karl Polyani erreferentziat hartuta– ekologia politikoa «XXI. mendeko aldaketa nagusi» (2002) gisa deskribatzen du, eta Dobson-ek, aldiz, ekologismoa eta ingurumenaren aldeko mugimendua bereizten ditu, hausnarketan honetan oinarrituta:

Ingurumenaren aldeko mugimendua administrazio ingurumen arazoei hurbiltzea aldarrikatzen du, arazo horiek egundo ekoizpen eta kontsumo balio eta ereduak funtsean aldatu gabe konpon daitezkeela uste baitu. Ekologismoak, aldiz, biziraupena jasangarria eta egokia izan dadin inguru naturalarekin ditugun harremanak eta gure bizimodu sozial eta politikoa sakonki aldatu behar direla dio.(1997: 22)

Ikuspuntu horretatik, ekologia politikoa ideia eta ekintza sorta osoa proposatzen du, beti ere ekosistemen eta antolakuntza sozialen arteko lotura estuak aintzat hartuta. Ekologia politikoa ezin da

inola ere «ideologia partzialtzat» jo, eta ezin da esan beste pentsamolde politiko bati men egiten dionik (kapitalista, komunista edo sozialdemokrata –eta bakoitzaren aldaera ugariak–). Une historiko jakin batean sortu da eta krisialdi sozial, ekologiko eta ekonomiko zehatz bati erantzuten dio, aipatutako gainerako pentsamoldeek, ez aurreikusteaz gain, eragin dutena.

Frantziako berdeen sorrera testuen arabera, sozialismoak zein kapitalismoak ekoizpena lehenesten dute eta soldatapeko lanaren esklabotza dute aberastasun iturri eta balio erreferentzia etiko. Biek kuantifikatu ezin daitezkeen giza dimentsioak, desioa, afektibotasuna ahazten dituen ekonomismo soilerako joera dute. Horrez gain, bi eredu hauek ez zuten lortu munduko hegemonia eskuratzeko muturreko lehian gainerako herrialde guztiak sartu zituzten bi inperialismo menperatzaileengandik aldentzea. Ezin dute erreferentzia izan edo irtenbiderik eman ez arlo ekonomikoan, ez antolakuntza politiko eta sozialaren arloan (Les Verts, 1984: 14). Horrenbestez, «modu ekologikoan pentsatzeko» gai izan ez direnez eta aldagai ekonomikoak benetan kontuan hartu ez dituztenez (Viveret, 2002:15), gakoa ez da ideologia horiek besterik gabe eraberritzea; bide berri bat proposatu behar da, beste itzaropen bat edo, bestela esanda, proiektu zibilizatzaile berri bat.

■ Ekologia politikoa erradikaltasun demokratiko gisa

Erreminta modernoa kolektibotasunean integratutako pertsonen zerbitzura jartzen duen (Illich, 2006) eta biomimesia autokontentzioa lehenesten dituen (Riechmann, 2008) «bizikidetzat gizartea» lortzeak, gure ordezkaritza demokrazien oinarriak zalantzan jarriko dituzten aldaketa sakonak eskatzen ditu. Gorz-en azken testuaren laguntzaz, belaunaldien arteko solidaritate eta planetaren solidaritate kontzeptuak oker hartzeak eta «biziraupen manamendua» kontuan ez izateak gizartea «faxismo berdera» eramán dezaketela esan dezakegu:

Premisa hauek gabe, gerra ekonomiak berezkoak dituen murrizketen, arrazionamenduen eta

baliabideen banaketa autoritarioen bidez soilik saihestu ahal izango litzateke kolapsoa. Beraz, kapitalismotik irtengo gara ezinbestean, modu zibilizatuan ala bortitzean. Zer modutan eta erritmotan irtengo garen da kontu bakarra. (2008b)

Bestalde, jasangarritasun nozioak interes orokorraren mendebaldeko ikusmolde tradizionala zalan-tzan jartzen du erabat, kezka politikoak «denbora tarte luzean» (etorkizuneko belaunaldiak barne hartzen dituen aldetik) eta espazioan (gizateriak espazio komun baten parte diren aldetik eta, beraz, herrien arteko interdependentzia ekologikoa dagoen aldetik) zabaltzen baitira (Boutaud, 2007). Hala ere, nabarmen geratzen da egungo sistema politiko eta demokratikoa ez dela gai epe luzean pentsatzeko eta ordezkatu gabeko interesak aintzat hartzeko, epe laburreko interesak lehenesten direla (Jonas, 1995) eta interes orokorra estatu-naziora mugatzen dela. Abiapuntu honek bultzatuta, ekologia politikoak aldaketa ahalbidetuko duten bideei buruz hausnartzen du, eta, beraz, «**etxean egiten dugunaren zentzuaren**» gainean erabakitzeko tresna gisa hartzen du demokrazia, ikuspuntu ekonomiko, sozial eta politikotik. Ingurumenaren aldeko mugimenduen edota kontserbadoreen ikusmoldeek ez bezala, ekologia politikoak –epe luzean proposatzen duen norabide aldaketa erradikala dela eta– dimentsio erabat eraldatzailea eta iraultzailea hartzen du. Hala ere, *Iraultza Handiaren* planteamendu antisistemak edo maimaistak baztertu arren, ez ditu egunez eguneko erreformismoa eta «urrats txikien politika» baztertzen, sistema kapitalistaren barruan aldaketarako tarte badagoela baiteritzo (Lipietz, 2008). Sistema bera gainditzeko xedez epe laburreko ekintza erreformistak eta epe luzeko helburu erradikalak batzen dituen bide honi «erreformismo erradikala» esaten diote ekologistek eta zenbait korrante sozialistek, baina gazte mugimendu ekologistek «iraultza mantsoa» kontzeptua ere erabili zuten berau izendatzeko (*Chiche!*, 1996). Lipietzen hitzetan, Michel Foucault eta beste filosofo batzuetan oinarritutako ikusmolde hau «**mikrohaustura askoren, inoiz amaitzen ez den iraultza molekular baten**» ametsean islatzen da (2000c: 185).

Planteamendu hau gauzatzeko, ekologiak definitziorik «ekopazifismoa»ren bidea eta lehentasunez

oinarrizko demokrazia edo demokrazia parte-hartzailea aukeratu ditu. Esaterako, bioekonomiaren ikuspuntutik, indarrean dagoen ordezkari-tza demokraziaren eredua zalantzan jartzen du, ekoizpen eta kontsumo jasangarrira egokituta ez dagoelako. Hierarkia baztertzailerik gogorrak dituzten sistema zentralizatu eta elitisten aurka, eredu ez-zentralizatua eta parte-hartzailea biztanleriaren funtsezko beharrak asetzeko modu eraginkorrena da (Bermejo, 2007: 64). Zentzu horretan, garapen jasangarriaren egungo definizioa ezarri zuen Brundtand Txosten moderatuak berak ere garapen jasangarria lortzeko bide egokiena baliabideen kontrola deszentralizatzea eta hitz nahiz bozka eskubidea komunitate lokalei ematea dela aldarrikatzen du (CMMAD, 1988: 90). Esparru sozialean, bizimoduan aldaketa sakonak onartzeko eta interes orokorra, tokian tokian nahiz planeta osoan, gaur egun nahiz etorkizunean, lehenesteko, gizarteak batasun handia behar du eta politika publikoak kudeatzeko konpromisoa hartu behar du. Hortaz, erabaki handien egonkortasuna eta iraunkortasuna giltzarria da gizarte iraunkorrerako trantsizioan. Beraz, epe luzerako adostasun indartsuak lortzeko, ekologismoan, prozesu demokratikoak hiritarren eta komunitateen elkarreragina eta parte-hartzea ditu oinarri, eguneroko nahiz urte askotako erabaki publikoetan. Zentzu horretan, Murray Bookchin-ek eta ekologia sozialak demokrazia zuzen modu berrien bidez konpromiso soziala hartzeko beharra ikusten dute ingurumenarekin zerikusia duten gaietan, interdependentziak eta elkarlanak ekosistemak eta espezieen arteko harremanak modu eraginkorrean zuzentzen dituztela aintzat hartuta (1999).

Noski, ekologia politikoak ez du demokrazia lokal eta parte-hartzailearen ahalmen eraldatzailea idealizatzen eta ez du uste *per se* ona denik ingurumenarentzat eta, oro har, gizartearentzat. Prozesu parte-hartzaileei ez bazaizkie beste ekimen batzuk eransten, hala nola kontzientziazioa edo hezkuntza, edo uneoro ez badute ikuspegi globala –eta gobernu transnazionala eta mundiala– integratzen, zaila da indarrean dagoen sistema automatikoki hobetzea. Ekologia politikoaren barruan hainbat ikusmolde daude, esaterako, John Barry-rena: «**Ikuspuntu ekozentriko hutsetik, demokrazia ez da funtsezkoa edo, kasurik txarrean, aukerazko osa-**

garri bat da» (Dobson, 1997: 49). Baina ikusmolde minoritario horiez gain, ekologia politikoa gizakien eta gainerako izakien autonomia ahalik eta gehien handitu nahi duen ekintzaren filosofia eta pentsamendu gisa ere ulertzen da:

Ekologiaren eta demokraziaren arteko loturak ahul izateari uzten dio [...] autoritarismoa baztertu egiten da printzipio berdearen mailan (eta ez arrazoi instrumental hutsen eraginez), printzipio liberalak baztertzen duen bezala: gizakiek euren patua erabakitzeko duten eskubidea funtsean urratzen du. (Eckersley, Dobson-en, 1997: 49)

Beraz, ekologia politikoaren eta demokraziaren arteko lotura egon beharko litzateke: demokrazia –aukeran, parte-hartzailea– ezinbesteko baldintza da ekologia politikoarentzat, baina ez da nahikoa ekosistemekiko errespetuan, justizia sozialean eta gizakien askapenean oinarritutako burujabetza proiektua gauzatzeko. Horrenbestez, Lipietzek dionarekin bat, ekologia politikoak gure jarrerek eta ohiturek zer eragin duten esaten digu, baina gizakien garapen bidea ez du ekologia politikoak aukeratu behar, gizakiek berek baizik, eztabaida publiko eta demokratikoaren balioen eboluzioaren arabera (2000a).

Alderdi berdeak esparru politikoan: teoriatik praktikara

Egunen batean, azenario bakar bat ikuste hutsak iraultza piztuko du.
Paul Cézanne

1960ko hamarkadan sortutako ideia eztabaida biziaren eta gizarte industrialaren kritika antiproduktibistaren ondoren, kontzientzia kolektibo eta ideologia ekologistak azaldu ziren –hau da, zenbait balio, erreferente eta utopia partekatu–, eta horri esker aukera berde antolatua bere tokia lortu du espazio politikoan. Hala, 1970eko hamarkadan, mugimendu sozialaren barruan zenbait erakunde ekologista sortu ziren, hala nola Lurraren Lagunak (1969) edo Greenpeace (1971) eta horrekin batera aktibismo bizia eratu zen «Bigarren Mundu Gerratik sortutako nazioarteko familia politiko bakarraren» eraikuntzaren inguruan (Munduko berdeak, 1992). Ikusiko dugun bezala –nagusiki Alemaniako, Espainiako eta Frantziako alderdi berdeen eta Munduko eta Europako berdeen sorrera testuen bidez–, alderdi berdeek zenbait ezaugarri partekatzen dituzte, besteak beste, 1968ko balioen oinordeko nagusiak izatea, jatorriari dagokionez heterogeneoak izatea, giza espeziaren biziraupenaren alde rol historikoa dutela sentitzea eta antzeko lerro pragmatiko nagusiak. Batez ere *hasieran*, alderdi politiko tradizionalakiko

eta, oro har, instituzioekiko mesfidantza izugarria partekatzen zuten, baita politika egiteko beste modu bat ere (besteak beste, Alemaniako «Sonstige politische Vereinigung» edo Frantziako «La politique autrement» leloek agerian uzten duten moduan). Alderdi formatuarekiko anbiguotasun horrek eboluzio eta berrebaluazio sakona izan zuen mugimendu berdea mundu osoan artikulatu zenean, boterera iritsi zenean eta pixkanaka instituzionalizatuz joan zenean. Horren ondorioz, espazio berdearen barruan kontraesan handiak daude gaur egun eta zalantza legítimo eta beharrezkoa ere badago alderdi berdeek erreformismo erradikalaren grinei eusteko ahalmenari buruz.

■ Lehen alderdi berdeak: erradikaltasunaren eta berrikuntzaren artean

Naturarekiko errespetuari otutako berrikuntza soziala sustatu zuen munduko lehenengo alderdia Zee-landa Berriko Vaues Party izan zen, 1972an sortua

(11). Bi urte geroago, René Dumont, ingeniari agromoa eta Frantzia ekologia politikoa aitatzat jotzen dena, Frantziako presidentetzarako hauteskundeetan aurkeztu zen, hainbat pertsona eta elkarreko ekologisten babesaz, esaterako, Les Amis de la Terre. «Hirugarren Munduko» eta ingurumenaren aldeko sektoretik zetorren, eta bere hautagaitzak hasieran mugimendu sozial eta elkartze mugimendu ekologistaren eta hauteskunde egitura zehatz eta «biodegradagarrien» bidez gauzatutako aldaera politikoa arteko elkarreragina erakusten du. Telebistaren eta masa komunikabideen loraldia aprobetxatuz, René Dumontek «hautagai garbi» eta «pobre» gisa azaldu zuen bere burua eta, besteak beste, ur eta elikagai gabezia adierazteko zuzenean baso bat ur edan edo sagar bat jan zituen (12). Emaitza onak lortu ez arren, mugarrira izan zen berdeen eraikuntza politikoa eta politikan berdeak hobeto eta modu iraunkorragoan egituratzeko ateak zabaldu zituen.

1980an, Karlsruhe-n (Alemania), Die Grünen fundatu zen, Alemaniako alderdi berdea, ordutik aurrera «alderdi berde ama» bilakatuko zena, ez sortzen lehena izan zelako, European eta munduan ekologismoaren motor politiko eta ideologiko nagusietakoa izateagatik baizik (13). Die Grünen kaosetik sortu zen (14) –Schumpeter-en *suntsipen* kreatiboaren teoria gauzatuz–, muturreko ekologistak (*Fundi*), ekosozialistak, ekologista erreformistak (*Realo*) eta ekofeministak batu zituen (Riechmann, 1994: 189-211), eta *anti-parteien-partei* (alderdien aurkako alderdi) gisa eta alderdi tradizionalen alternatiba «ekobakezale» gisa aurkeztu ziren. «Giza eskubideak ez errespetatzearen, gosearen eta Hirugarren Munduko pobrezia-*ren* [...], *klimaren krisialdiaren eta gatazka militarren*» aurka borrokatzeko betebeharrak historikoa dutenaz jabetuta, instituzio politikoen barruan nahiz hortik kanpo, «*funtsezko aldaketatzat*» dute beren burua:

Berdeek indar ekologista eta demokratikoak maila parlamentarioan eta hortik kanpo mobilizatzea, aspaldi egin behar zena, guztiz beharrezkoa dela deritzogu. (*Verabschiedete Satzungspräambel*, 1980)

Bestalde, Frantziako Les Verts urrutirago doa hegemonia soziopolitikoagatik lehiazteko beharrari dagokionez. Sorrera testuetan, botere politikoa

konkista demokratikoaz gain, «bi inperialismo nagusien», kapitalisten eta komunisten aurrean botere ekonomikoa ere lortzea ezarri zuten helburutzat:

Gustuko izan ala ez, ezin dugu boterea lortetik alde egin, ez soilik botere politikoa, baita are gaitzagoa izango den botere ekonomikoa ere. Gizarte kapitalistei, Estatu kapitalistei edo Estatu «sozialistei» aginte politikoz gain, ekoizpen eta truke baliabide guztiak kendu behar dizkiegu. (*Textes fondateurs des Verts*, 1984)

Espanian, alderdi berdeak Europako kideen diskurtso bera hartu zuen sortu zenean, bultzada nagusia Alemaniako Berdeen buruzagi nagusietakoa zen Petra Kellyk eman baitzion; hurrengo urteetan Espainiako mugimendu berdearen ikono bihurtu zen (eta handik aurrera ez zen bertako pertsonaia nabarmenik izan). 1983ko maiatzaren 29an, Kellyren bisita aprobetxatuz, herrialde osoko hamasei ekintzaile ekologistek Tenerifeko Manifestua sinatu zuten. Bertan, instituzioekiko errezeloa agertu arren, alderdi politiko bat sortzea ezinbestekotzat jo zuten:

Bide instituzionalak mugimendu soziala itozteko arriskua direla jakitun izan arren, ezinbestekoa deritzogu bizitzaren eta gizakiak ingurunearekin dituen harremanen kontzeptzio globalarekin konprometitutako talde politikoa sortzeari. (*Tenerifeko Manifestua*, 1983, III. puntua)

Alderdi politiko berdeak militante ekologisten beharrei erantzunez sortu ziren; militante horiek, ezkerreko nahiz eskuineko alderdi produktibista klasikoekiko konfiantza galdu zuten, beraiek kudeatuta, teoriarik eta praktikan ordezkatzeko dituen mugimendua nahi zuten. Indarrean zeuden praktika politikoak zirela eta, lehen alderdi berdeek 1968ko kontrakulturatik jasotako jarrera kritikoak agertu zituzten eta demokrazia parte-hartzailearen aldeko konpromiso erradikala hartu zuten. Iberiar penintsulan zein Europa osoan, erakunde hierarkiko, bertikal eta matxistak baztertzeari oinarrituta eraiki zen alderdi berdearen ideia. Ingurumenaren aldeko mugimenduen, mugimendu feminista eta erregionalisten eta askapen mugimenduen eragin-

pean eta korrante marxista berritzaileen ekarpenaz, aukera berdea ikuspuntu horizontalean, genero berdintasunean eta kideen parte-hartze aktiboan oinarrituta eraikitzen saiatu ziren.

Halaber, Die Grünen-en iritziz, aldaketa ez da soilik ikuspuntu ekologikotik egin behar, baizik eta «oinarrizko demokraziaren, bortxakeriarik ezaren eta gizakien autodeterminazioaren» ikuspuntutik ere bai (1980). Espainiako berdeei dagokienez, zera diote sorrera testuan: «Gure herrialdeko egungo alderdi politikoek ez diete erantzuten gure herriaren bizi kalitatea eta baliabide naturalen gozatzeko maila hobetzeko eskaerei». Beraz, ezinbestekoa da «Ingurumenaren esparruan parte hartzen duten kontsulta, eztabaida eta erabaki guneetan» egotea, «presio sozialaren laga ezinezko jarduerari» sekula uko egin gabe. Beste modu batera esanda: bi hankako erakundea, hanka bat mugimendu sozialetan duena eta bestea, instituzioetan.

Die Grünen-en eta politikan sartu diren ekologista gehienek kasuan, “erreformismo erradikal” kontzeptuaren aplikazio jakin honek harreman anbigua dakar indarrean dagoen sistema politikoarekin eta sistemaren tresna nagusiak diren alderdi politikoekin. Alderdi politikoak erronka sozioekologiko berrietara egokitzeko gai ez direlako eta barne jardueragatik kritikatu arren, beharrezkotzat jotzen dira aldaketa abiatu ahal izateko. Garton-ek azaltzen duenez, munduko alderdi berde gehienek, ordezkariak demokraziak inolaz ere asetzen ez dituen arren, demokrazia parlamentarioaren joko arauak onartzen dituzte (ikus sistemaren barruan jarduteko aukera). Dena den, askotan arau horiek aldi baterako onartzen dituzte, indarrean dagoena erreformatzeko proposamenen eta desobediencia zibileko neurrien artean mugitzen dira, beti ere demokrazia parte-hartzaile eta zuzena jomugatzat dutela, Garton-ek alderdi berdeen oinarrizko hamalau printzipioetan jaso bezala (2008: 111).

■ ‘Glokalizazio’ berdea

Erradikaltasuna eta berrikuntza bateratu zituen lehen fase honen ondoren, mugimendu berdea mundu mailan antolatzeko urratsak ematen saiatu da. 1992an, Nazio Batuen Ingurumen eta Garapen

Konferentziaren bezperetan, berdeen munduko lehen topaketa burutu zen. Alderdi berdeetako ordezkariak «mundu osoko larrialdi egoera» salatu zuten, «garapen eredu berri bat» eskatu zuten, eta «“globalean pentsatu, lokalean jardun” delakoaz haratago» joateko ordua zela eta «globalki jardutea» ere beharrezkoa zela gogorarazi zuten. Horrenbestez, «Iparraldean nahiz Hegoaldean ekologia politikoa eta politika berdea sustatzeko» konpromisoa hartu zuten. 1992ko adierazpenak ekologia politikoak rol historikoa bete behar duela agerian utzi arren, munduko mugimendu berdearen egituraketa teorikoa eta praktikoa hastapenetan zegoen oraindik. Lehen topaketa hauetan Hegoaldeko herrialde gutxik parte hartu zuten –ekologia «Iparraldeko luxua» ez dela gogorarazi arren– eta izaera koiunturala eta hedapen mugatua izan zuen. Lurreko Gailurraren bultzada eta proiektzio politikoa aprobetxatuz, gehienbat politika zehatzak kritikatzeari ekin zion eta oraindik ikuspegi globala lortzeko ahalmen txikia zuen.

2001ean Australian burutu zen Berdeen munduko lehen kongresuan, egoera hori konpontzen eta berdeen globaltasunean sakontzen saiatu ziren. Canberrako gutunean –gaur egun esparru politiko ekologistan erreferentzia dena– «alderdi eta mugimendu politiko berdeen nazioarteko sare» gisa definitu ondoren, munduko Berdeek ekologia politikoren izaera eraldatzailea nabarmendu zuten «jendearen jarreratan, balioetan eta ekoizteko eta bizitzeko moduetan funtsezko aldaketak egiteko beharra» aldarrikatuz. Horrez gain, 1992an gertatu bezala, agenda politikoko ekitaldirik izan ez zenez, borroka ekologistaren izaera iraunkorra eta holistikoa indartu zuten eta jakintza ekologikoan, justizia sozialean, demokrazia parte-hartzailean, bortxakeriarik ezean, jasangarritasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako printzipio egituratzaile eta ideologikoak proposatu zituzten. 2008ko maiatzean, Sao Paulon (Brasil), Berdeen munduko bigarren kongresuan, politika eta antolakuntza gaiak zehazteko beste urrats bat ematen saiatu ziren (15). Mundu osoko ekitaldietan (NBEren gailurrak, Munduko Merkataritza Erakundearenak eta abar) parte hartzea eta ekitaldi horietan aho batez hitz egitea bermatuko duen egituraren aldeko apustua egin zuten. Modu horretan batasun ekologista indartzen,

eragin lokala mundu guztira zabaltzen eta talde ekologisten oinarritzko lana eta berdeek erantzukizun kargu politikoetan duten gero eta pisu handiagoa hobeto uztartzen saiatu ziren.

Bultzada hori jaso eta mugimendu berdea beste eremu batzuetan zabaltzen den arren, hala nola Asian eta Afrikan –mugimenduen arteko lehia handia dago *marka berdea* babesteko–, aukera berdearen garapena ahul dago oraindik egituratzeari dagokionez (16), hazkunde handieneko guneetatik kanpo –baita Iparramerikan ere, 1960eko hamarkadan borroka eta hausnarketa ekologistan aitzindari izan arren–. Hala ere, Iparraldean nahiz Hegoaldean mugimendu berdearen aniztasuna ikusita, zaila da ingurumenarekiko kezka eta ongizate material maila finkoa lotuta daudela ondorioztatzea, Ronald Inglehart-en tesi *postmaterialistaren* (1991) ildoari jarraiki. Hegoaldeko mugimendu ekofeminista eta ingurumenaren aldeko mugimendu batzuek proiektu politiko berdearekin duten afinitateak (ikus, adibidez, Kenyako Green Belt Movement eta Wangari Maathai) «**pobreen ekologismoak**» (Martínez Alier, 2005) ekologia politikoa- ren inguruan espazio bat eraikitzearekin bat egin dezakeela erakusten du. Bestalde, Hegoaldeko gatazka ekologikoetako protagonista askok beren burua ingurumenaren aldekotzat edo ekologizat- zat jo nahi ez dutelako (eta, horrez gain, beren burua berdetzat jotzen duten alderdi askok ospea galdu dutenez), zaila da joera ekologista garbia duten oinarritzko mugimenduak ideologia berdearekin eta ideologia horren aldaera politikoarekin lotzea. Dena den, Europako edo Ozeaniako gune sendoek bultzatutako mundu osoko antolakuntza- ren aterpean, dinamika zentripeto bat sor daiteke, *berdeak* erakarpen eta interes puntu bihurtzeko borrokan aurrerapauso bat eman nahi duten ingurumenaren aldeko mugimenduentzat nahiz franki- zia baten edo birmoldaketa politikoaren bila dabil- tzan oportunistentzat.

Europar ekologiararen antolakuntza eta egituratze politikoak beste inon baino fintasun handiagoa lortu du. Dagokien herrialdeetan (Alemanian, Belgikan, Frantzia, Finlandian, Luxenburgon, Herbe- reetan, Suedian, Suitzan eta abar) ondo finkatutako alderdiek sustatuta, mugimendu berdea lehena izan da Europa osoko lehen alderdia martxan jartzen:

European Greens (Europako Alderdi Berdea) (17). Izaera transnazionala –eta, beraz, oso europeista– eta ekologia politikoaren irakaspenak bere eginez, eta kidetasun sentipen komun indartsuari esker, Europako Alderdi Berdeak bere espezifikotasuna indartu eta bere oinarriak ezarri ditu:

Europako Berdeak at eginik etorri gara gure familia politiko propioa osatzeko xedez. Mundu baketsu, bidezko eta ekologikoki jasangarrian Europa aske, demokratiko eta sozialaren alde ari gara borrokan. Hainbat balio defendatzen ditugu, hala noa justizia, giza eskubideak, eskubide zibila- lak, jasangarritasuna eta norbanakoak bere bizi- modua beldurrik gabe izateko eskubidea. (*The Charter of the European Greens*, 2004)

Era berean, gazte berdeek mugimendu berdearen garapen jarraibideak kontuan hartzen dituzte oro har. Batetik, ez da harrizkoa alderdi berdeei orga- nikoki ala ez lotutako gazte erakundeak ugariagoak izatea aukera berdea politikan neurri handiagoan ezarrita dagoen herrialdeetan (Alemanian, Finlan- dian, Suedian eta abar). Bestetik, Europar elkarte- ko eta antolatze-ko ahalmen handia dago Europako Gazte Berdeen Federazioaren bidez –2008an 30 gazte erakunde eta GKEez osatua– (18), baina kon- tinente mailan antolatzea askoz gaitzagoa da Hego- amerikan, Asian edo Afrikan. Toki horietako egitu- raketa ahula bada ere, gazte berdeek ere beren konpromisoa «globalizatze-ko» urrats bat egin zuten aurrera 2007ko Nairoibiko Munduko Gizarte Foroa baino lehenago. Global Young Greens sortu zuten eta «**gazte ekintzaile eta gazte erakunde berdeen munduko sare**» moduan definitu zuten. Espainiar gazte mugimendu hau alderantziz sortu zela nabar- mendu behar da –globaletik lokalera–, hau da, Espainiako mugimendu berde zatitu eta ahularen babesik gabe, eta erreferentziak Europar edo mun- duan bilatuta: «**Autonomoak eta independenteak izan arren, harro onartzen dugu Europako Alderdi Berdearen eta Canberran 2001ean munduko ber- deek sinatutako gutunaren utopia, eta Europako gazte ekologisten erakunde guztien alboan jardute- ko nahia adierazten dugu**» (Gazte Berdeen Sorrera Manifestua, 2005). «Espainiako gazte ekologisten» oinarritzko ekimena izan arren, agerian uzten du

Europako mugimendu berdeak goitik beherako dinamikan gero eta erakarpen ahalmen handiagoa duela. Dinamika horrek berak Ekialdeko Europako eta Kaukasoko herrialdeetan ere eragina izan du; herrialde horietan bultzada ideologikoa eta antolatzeko ahalegina ez datoz soilik Alemaniatik eta gero eta eragin zuzenagoa du Europako Alderdi Berdeak. Hortaz, eragin hori dela eta erakunde berde ama berritzaletan jo dezakegu (19).

■ Berdeak boterearen erronkaren aurrean: etsipen istorioa ala aldaketaren hazia?

Glokalizazioarekin bat, ekologia politikoa boterearen sekretuetan barneratu da eta, hala, bere plan-teamendu teoriko eta praktikoak probatu ditu eta probatzen jarraituko du. Izan ere, alderdi berde askok botere maila garrantzitsua lortu dute, lehenik maila lokal eta erregionalean eta gero maila nazional eta kontinentalean. Gero eta erantzukizun kargu garrantzitsuagoak hartu dituzte, baina kargu horiek ez dituzte beti behar bezala prestatutako pertsonen –eta atzean zituzten kolektiboek– hartu. Noski, erantzukizun kargu horiek onartzeak boterearen jardunaren berezko kontraesanak dakartza berekin, bereziki erradikaltasunaren eta utopia iraultzaileen hegopean sortutako mugimendu batentzat. «Gatazkatan mobilizatzeko alderdi txikiak» izateari utzi ondoren, 1990eko hamarkadan, berdeak sistema politikoaren barruko alderdi bihurtu dira. Gobernuetan parte hartu izanak aldaketa sakonak ekarri ditu, esaterako, lidergoen indartzea eta alderdi tradizionalen antzeko barne egitura, eta gobernu koalizioetako lorpen politikoaren atzetik jarri du kideei txantajea egiteko ahalmena (Valencia, 2006: 212-213).

Adibidez, 1960ko eta 1970eko hamarkadatan talde iraultzaile eta anarkistetako ekintzaile nabarmenetakoa izan zen Joschka Fischer-ek Alemaniako Atzerriko ministro gisa hartutako erabakiek agerian utzi zuten mugimendu berdearentzat –eta, hedaduraz, edozein mugimendu eraldatzailearentzat– zaila dela autentikotasun ideologikoari eustea, indarrean dagoen sistemaren barruan sartu eta elkarreragina hasten denean (20). Die Grünen-en oniritziak ale-

maniar tropak Afganistanera bidaltzean, Fischerrek ekologia politikoaren funts bakezaleak hautsi zituen ala, alderantziz, zonalde horretan bakeari eusten lagundu zuen? Atzerriko politikan kontzesio hau egin izanak aurrerapen ekologikoei atea zabaldu al zien, adibidez, energia nuklearra alde batera uzteari? Konpromiso hau etikoki onargarria eta arduratsua izan al zen?

Hausnarketa hau Europako ekologismo politikoaren barruan sortutako eta konpondu gabeko antzeko beste eztabaida ekobakezale bati dagokionean erabil dezakegu: edozein erakunde militar irmo baztertu behar da, ala ekologismo politikoak Europar Batasunak lurraldea babesteko lukeen eta munduan bake indarra izango litzatekeen ejertzito federal bat onartu beharko luke? Elkarren aurka dauden giza izaeraren kontzepzioak (Rousseau-tik hasi eta Hobbes-eraino doazenak) agerian uzteaz gain, ideia berdeen eta sistema kapitalistaren barruko inertziaren nahiz jarduteko aukeraren arteko kontraesan honek barne gatazka eta egitura gatazka gogorak eragin ditu mugimendu berdean. Funtsean, alderdien kontrako alderdia oximoronean oinarritutako ezaugarriaren ondorio ia saihestezina da. 1980ko hamarkadan, *Realoen* eta *Fundien* arteko gatazka eragin zuen, posibilisten eta *Realpolitik* delakoa defendatzen zutenen eta *Fundamentuen* eta oinarritzko erakundeen zaindarien arteko tentsio dialektikoa areagotu zuen. Mugimendu berdeak zenbateraino onartu behar du, Daniel Cohn-Bendit *Realoak* dioen moduan, «**purutasun ideologikoa galtzeko arriskua, ekintza erreala eta eraginkortasunaren alde?**» (Cohn-Bendit eta Mendiluce, 2000: 46). Sistema politiko tradizionalaren barruan beste alderdi bat bilakatu da eta epe labur edo ertainean ez du gehiengoa duen alderdia izateko itxaropenik. Horrez gain, zalantzarik gabe, mugimendu berdearen egungo kontraesan nagusietakoa urrats txikien erreformismoa eta epe luzeko erradikaltasun eraldatzailea bateratzeko zailtasuna da. Horrekin batera, emankortasun berritzaile eta ideologikoaren hazia eta motorra ere badela deritzot, baina sorrerako balioen inguruan barne kohesioa eta koherentziari eusteko ahalmenaren menpean dago, bestela ekologia politikoa ordezkartza politikoari dagokionez umezurtz gera daitekeelako. ■

Florent Marcellesiren artikulua luze honek badu beste azken kapitulu bat: “Ezkerrekoa al da ekologia politikoa?” Berak dio mugimendu ekologista eszenatoki mediatikora agertu zenetik, pentsalari eta teoriko ugari plazaratu zutela ea hau ezkerrekoa edo eskuintekoa ote zen. Egun ere Marcellesik argi du eztabaidak baduela lekurik. Marcellesik lan honetan gai honi buruz argitaratutakoa laburtuko dugu ondorengo lerroetan.

Ezkerrekoa al da ekologia politikoa?

ALEMANIako BERDEEK ospetsu egin zuten ondoko leloa 1984an sortu zirenean: “Ekologia politikoa ez doa ez ezkerrean ez eskuinera, aurrerantza doa”. Frantziako ekologismoak ere antzeko posizioak erakutsi zituen, “ez bata, ez bestea” leloarekin. Alderdi hauen sorreratik 25 urte pasatu direnean, aldiz, errealitateak argi erakutsi du ekologia hobeto moldatu dela ezker aldearekin. Espainiako ekososzialismoak ere hori bera berresten du. Europako mugimendu berdean eztabaida sakona dago kapitalismoaren baitan dagoen jardun tartean. Horrek guztiak eta gehiagok ere, ekologismoa, sozialismoa eta ezkerrearen artean diren harremanei buruzko eztabaida birzabaltzera bultzatzen gaitu.

Teoria eta indar politikoen kokapenerako Espainian ezker/eskuin bikotea erabiltzen da bakarrik, baina mundu anglosaxoian ekonomia eskema klasiko honi ardatz sozial bat gehitzen zaio: autoritario/libertario ardatza. Honen arabera, mundu mailako konparaketak egingo bagenu, emaitza harrigarriak azalartuko lirake. Seguruena, “ezkerra” deitzen dugun hori gaur egun ez da zehatz definitutako kontzeptu bat, gehiago oinarritzen da imaginario kolektibo historiko batean eta ez du ondo ordezkatzen gaur egungo esparru ideologikoaren aniztasuna.


Ekologismoaren etorrerarekin, hirugarren ardatz bat gehitu behar zaio orain arteko bi dimentsioko azterketari, produktibismoa eta antiproduktibismoaren dialektika. Jadanik kapitala/lana dialektika ez da erabakigarria eta garrantzitsua produkzioak hartzen duen norabidea da; eta ardatz berri hau, gainera, berez da egituratzailea eta autonomoa.

Beraz, eta lehen hurbilketa gisa, gure gizartearen konplexutasuna hobeto azalduko duen hiruko eskemara

iristen gara: liberal-kolektibista / autoritario-libertario / produktibista-antiproduktibista. Goazen ikustera ekologia politikoa nola kokatzen den eskema berri honetan: jasangarritasun sendoaren alde egiten duenez, produktibismoaren beste muturrean dago ekologia politikoa. Agerian da ekologismoak etengabe egiten diola erreferentzia askapenaren etikari, emantzipazioaren borrokari edota norbanakoaren produkzio askari. Eta argi defendatzen ditu, halaber, oinarritik parte hartzea, askatasunaren defentsa eta aginte hierarkiko edo burokratikoaren aurkako kritikak. Argi da, beraz, ezker libertarioarekiko edo liberalismoaren muinarekin –norbanakoaren askatasunen garrantzia– dituen konexio puntuak, beti ere elkartasunaren balioarekin indartuak.

Ezker-eskuin ardatz ekonomikoari dagokionez, ordea, famili ekologista oso zabala da eta ez dago ondorio argirik, baina bai aurrera liteke ikuspegi ekologistak neoliberalismoa eta marxismo ortodoxoa era berean arbuaitzen dituela. Kolektibismoa eta liberalismoaren arteko hirugarren bidearen arakatzea etengabekoa da eta bioekonomiaren printzipioetako batean oinarritzen da: azpi-sistema batek ezin dezake bera ere biltzen duen sistema arautu (“Ekologia politikoa antiproduktibismo gisa” kapituluaren aritu gara luze honetaz). Aipatutako estalpe honetan, ekologiararen munduan proposamen ugari daude gaur egun.

Ekologia politikoa kritikoa da lan ordainduaren gizarte industrialarekin eta, “produkzioa-enplegua-konsumoa” hirukia medio, produktibismoak aurrera begira egiten duen ihesarekin ere bai. Alde horretatik, nagusi den kapitalismoa eta sindikatu eta ezkerreko mugimendu gehienei kontrajarritik, ekologismoak –ez aho batez– zalantzan jartzen du erabateko enplegua-



ren ikuspegia. Hazkundera moteldu eta kontsumoa gutxitzea legoke ikusmolde horren oinarrian. Hala uler liteke hobeto mugimendu ekologistak, oro har, herritarren oinarritzko errentaren alde erakutsi duen interesa.

■ Ekologia politikoa eta (eko)sozialismoa

Galdera honakoa da: bateragarriak al dira sozialismoa eta ekologia politikoa? Eta honi erantzuteko, zein sozialismori buruz ari gara? Aldez aurretik, marxismo ortodoxoa eta ekologia politikoaren arteko edozelako harremana baztertuko dugu. *Agur proletariotza* liburuan (Gorz eta Gil, 1981) Gorzek nagusi den marxismo honekin apurketa proposatzen du. Kapitalismoaren aurkako ikusmoldean sakondu eta marxismoa gaintzen saiatzen da, norbanakoen emantzipazioa eta produktibismoa eta kontsumismoari egiten dien muturreko kritikaren arteko harremanean sakontzen du horretarako. Soldatapeko lanaren goraipamenaz kritika gogorra egiten du eta zera galdetzen du: ausartuko al gara abiatzen lanaren gizartetik harago?

Viveret filosofoaren ustez ere, sozialismoaren eta liberalismoaren arteko gatazkak oso bortitzak dira sarri, baina kultur oinarri berbera dute, bientzat funtsezkoena ekonomia da, "lan produktiboa" medio hori baita edozelako aberastasunaren sorburu. Sozialismoaren sustraietan ekologikoaz pentsatzeko ezintasuna dago, natura eta ondasun ugariak produkzioarako osagaiak besterik ez direlako. Determinismo antropologiko batek gidatzen du *Homo economicus* hori historiaren ardatz gisa hartzera.

Eta orduan zertan oinarritzen da ekosozialismoa? Sozialismo dezentralizatzailea hartzen du oinarri honek, ez autoritarioa; Rosa Luxemburgo eta korrante anarkista eta libertarioak hartzen ditu ipar eta, beraz, ekologia politikoak bezala, marxismo-leninismoa eta estalinismoa arbuizatu zituzten. Lipietz-ek "gorritik-berderako" ezinbesteko bilakaeraz hitz egiten du eta ekologia politikoa izendatzeko "postsozialismoa" termino probokatzailerik ere erabili izan du. Lipietzen ustez, sozialismoa eta ekologia politikoaren ikusmolde desberdinen funtsa garapena da, hau da, sozialismoak garapenaren ikusmoldeetik begiratzen dio historiari eta ekologia politikoak ez. Pertsonak naturaren eraldaketarekin lortzen duen garapena, hori da historiaren funtsa sozialismoarentzat, eta hori da ekologia politikoarekin duen kontraesan nagusia. Munduaren konplexutasuna eta indar eraldatzaile berriei buruz aritzerakoan, beraz, Lipietzen ustez ekologia politikoz hitz egin behar da, berau baita XXI. mendeko "esperantza berria".

Edozein modutan, ekosozialismoak eta ekologia politikoak antiproduktibismoaren ikusmolde ugari partekatzen dituzte eta nire ustez, ekosozialismoak marxismoaren kritika azkenetara eramaten badu, bere eredu sozialistatik apurka urrundu eta eredu ekologistara gehiago hurbilduko da. Europara begiratuta hori gertatzen ari da. Hor dira ekosozialistak, ekobakezaleak, ekofeministak, ekologista sozialak, ekoliberalak, ingurumen zaleak... eta badirudi ekologiak guztiak estalpe berean har ditzakeela politika egiterakoan Europako egungo mugimendu berdeak. ■

Bibliografía

- ANTUNES, Carlos, Pierre JUQUIN, Penny KEMP, Isabelle STENGERS, Wilfred TELKÄMPER y Frieder Otto WOLF (1993): *Manifiesto ecosocialista. Por una alternativa verde en Europa*, Madril, Los Libros de la Catarata, 2. ed.
- BERMEJO, Roberto (2001): *Economía sostenible. Principios, conceptos e instrumentos*, Bilbo, Bakeaz.
- (2007): «El paradigma dominante como obstáculo para la sostenibilidad. La transformación epistemológica y paradigmática de la economía sostenible», *Ekonomiaz. Ekonomiari buruzko euskal aldizkaria*, 64, 36-71.
- BOOKCHIN, Murray (1988): «Nosotros los verdes, nosotros los anarquistas», *Comunidad*, 63.
- (1999): *La ecología de la libertad: el surgimiento y la disolución de la jerarquía*, Móstoles, Nossa y Jara.
- BOUTAUD, Aurélien (2007): «Développement durable et démocratie. Le nécessaire renouvellement des institutions publiques», *Futuribles*, 329.
- CARPINTERO, Óscar (1999): *Entre la economía y la naturaleza. La controversia sobre la valoración monetaria del medio ambiente y la sustentabilidad del sistema económico*, Madril, Los Libros de la Catarata.
- CHICHE! (1996): *Pour une révolution lente*. <http://www.chicheweb.org/spip.php?article2&ar_recherche=r%E9volution%20lente>.
- CMMAD (INGURUMENA ETA GARAPENAREN MUNDU BATZORDEA) (1988): *Nuestro futuro común* (Brundtland txostena), Madril, Alianza Editorial.
- COHN-BENDIT, Daniel (2008): Elkarrizketa, *Télérama*, 3037. <http://www.telerama.fr/monde/26951-oubliez_mai_68_grand_entretien_avec_daniel_cohn_bendit.php>.
- eta José María MENDILUCE (2000): *Por la tercera izquierda*, Bartzelona, Planeta.
- DEGANS, François (1984): «Qu'est-ce que le productivisme?» (LES VERTS: *Textes fondateurs des Verts*).
- DIE GRÜNEN (1980): *Verabschiedete Satzungspräambel*, Karlsruhe.
- DOBSON, Andrew (1997): *Pensamiento político verde, una nueva ideología para el siglo XXI*, Bartzelona, Paidós Ibérica.
- ELLUL, Jacques (1977): *Le système technicien*, Paris, Calmann-Lévy.
- ETXEBERRIA, Xabier (1994): *La ética ante la crisis ecológica*, Bilbo, Bakeaz (Cuadernos Bakeaz, 5).
- EUROPEAN GREENS (2006): *The Charter of the European Greens: European Green Party Guiding Principles*. <http://www.europeangreens.org/cms/default/rubrik/9/9341.the_charter_of_the_european_greens.htm>.
- FERNÁNDEZ, Joaquín (1999): *El ecologismo español*, Madril, Alianza Editorial.
- GARRIDO PEÑA, Francisco (1993): *Introducción a la Ecología Política*, Granada, Comares.
- GARTON, Pehr (2008): «¿Qué piensan los partidos verdes?» (¿Se necesita una ideología verde?, Cogito).

- GEORGESCU-ROEGEN, Nicholas (1996): *La Ley de la Entropía y el proceso económico*, Madril, Fundación Argentaria.
- GOMÀ, Ricard, y Marc RIUS (2006): «Iniciativa per Catalunya Verds (ICV). La izquierda verde de Catalunya» (Ángel VALENCIA (ed.) (2006): *La izquierda verde*, Bartzelona, Icaria.
- GORZ, André (1982): *Ecología y política*, Bartzelona, El Viejo Topo.
- (1997): *Misérias de lo presente, riqueza de lo posible*, Bartzelona, Paidós Ibérica.
- (2006): «L'écologie, une éthique de la libération», *EcoRev'. Revue Critique d'Écologie Politique*, 21 (2005-2006 udazkena-negua).
- (2008a): *Carta a D.*, Bartzelona, Paidós Ibérica.
- (2008b): «Le travail dans la sortie du capitalisme», *EcoRev'. Revue Critique d'Écologie Politique*, 28 (otoño-invierno 2007-2008). <<http://www.ecopolitica.org/>>.
- eta Miguel GIL (1981): *Adiós al proletariado*, Bartzelona, Ediciones 2001.
- GRINEVALD, Jacques (1996): «Prólogo», en Nicholas GEORGESCU-ROEGEN: *La Ley de la Entropía y el proceso económico*, Madril, Fundación Argentaria.
- ILLICH, Iván (2006): *Obras reunidas* (rev. Valentina Borremans y Javier Sicilia), Mexico, Fondo de Cultura Económica, I y II liburukiak.
- INGLEHART, Ronald (1991): *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas*, Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas.
- JONAS, Hans (1995): *El principio de responsabilidad: ensayo de una ética para la civilización tecnológica*, Bartzelona, Herder.
- KELLY, Petra, eta besteak (1983): *Manifiesto de Tenerife*.
- LATOUCHE, Serge (2008): *La apuesta por el decrecimiento. ¿Cómo salir del imaginario dominante?*, Bartzelona, Icaria.
- LES VERTS (1984): *Textes fondateurs*.
- LIPIETZ, Alain (1999): *L'écologie est un post-socialisme*, <<http://lipietz.net/spip.php?article228>>.
- (2000a): «L'écologie politique, remède à la crise du politique?», *AGIR*, 3. <<http://www.berdeak.org/LIPIETZ.htm>>.
- (2000b): «Qu'est-ce que l'écologie politique?», Saint-Denis (Francia) aurkeztutako ponentzia, <<http://lipietz.net/spip.php?article212>>.
- (2000c): «Political Ecology and the Future of Marxism», *Capitalism Nature Socialism*, 39.
- (2002): *¿Qué es la ecología política? La gran transformación del siglo XXI*, Txileko Santiago, Instituto de Ecología Política.
- (2006): «Du rouge au vert. Portrait d'Alain Lipietz par Alain Lipietz», *EcoRev'. Revue Critique d'Écologie Politique*, 21 (2005-2006 udazkena-negua).
- (2008): «André Gorz et notre jeunesse», *Multitudes*, 31, 163-169.
- MUNDUKO BERDEAK (1992): *Munduko lehen bilkura berdearen azken ebazpena*, Río de Janeiro.
- (2001): *Carta de Camberra*.
- LOWY, Michael, y Joel KOVEL (2002): «Ecosocialist manifesto», *Capitalism Nature Socialism*, 13 (1). <<http://www.manueltalens.com/lecturas/manifesto.htm>>.
- MARCELLESI, Florent (2007a): «Desarrollo, decrecimiento y economía verde», *The Ecologist para España y Latinoamérica*, 31.
- (2007b): «André Gorz vive, la lucha ecologista sigue», *Ecología Política*, 34, 124-125.

- (2008): «Nicholas Georgescu-Roegen, padre de la bioeconomía», *Ecología Política*, 35, 143-144.
- MARTÍNEZ ALIER, Joan (2005): *La ecología de los pobres*, Bartzelona, Icaria.
- eta Klaus SCHLÜPMANN (1991): *La ecología y la economía*, Mexico, Fondo de Cultura Económica.
- MARX, Karl (1973): *Grundrisse* (trad. Martín Nicolaus), New York, Vintage.
- MÉDA, Dominique (1999): *Qu'est ce que la Richesse?*, París, Aubier.
- MOON, Michael (2008): «Hacia una ideología verde» (Per GAHRTON: *¿Se necesita una ideología verde?*, Cogito).
- PARIJS, Philippe van, y Yannick VANDERBORGHT (2006): *La renta básica, una medida eficaz para luchar contra la pobreza*, Bartzelona, Paidós Ibérica.
- PASSET, René (1996): *Principios de Bioeconomía*, Madril, Fundación Argentaria.
- (2001): *La ilusión neoliberal*, Bartzelona, Debate.
- PRIGOGINE, Ilya, e Isabelle STENGERS (1983): *La nueva alianza. Metamorfosis de la ciencia*, Madril, Alianza Editorial.
- RIECHMANN, Jorge (1991): *¿Problemas con los frenos de emergencia? Movimientos ecologistas y partidos verdes en Holanda, Alemania y Francia*, Madril, Talasa.
- (1994): *Los Verdes alemanes*, Granada, Comares.
- (1995): «Desarrollo sostenible: la lucha por la interpretación» (Jorge RIECHMANN, José Manuel NAREDO, Roberto BERMEJO, Antonio ESTEVAN, Carlos TAIBO, Juan Carlos RODRÍGUEZ MURILLO y Joaquín NIETO: *De la economía a la ecología*, Madril, Trotta 11-35).
- (2008): *Biomímesis. Ensayo sobre imitación de la naturaleza, ecosocialismo y autocontención*, Madril, Los Libros de la Catarata.
- ROSTOW, John (1961): *Las etapas del crecimiento económico*, Mexico, Fondo de Cultura Económica.
- ROUSTANG, Guy (2003): «Rompre le triangle production-emploi-consommation», en Philippe MERLANT y Jacques ROBIN: *Sortir de l'économisme*, Ivry-sur-Seine (Frantzia), Les Éditions de l'Atelier.
- SACRISTÁN, Manuel (1987): *Pacifismo, ecología y política alternativa*, Bartzelona, Icaria.
- VALENCIA, Ángel (ed.) (2006): *La izquierda verde*, Bartzelona, Icaria.
- VERNADSKY, Vladimir I. (1997): *La biosfera*, Madril, Fundación Argentaria.
- VILLALBA, Bruno (2005): «Rachel Carson, un engagement scientifique et littéraire», *EcoRev'. Revue Critique d'Écologie Politique*, 21 (2005-2006 udazkena-negua).
- (2007): «Ivan Illich, une critique écologiste des institutions», *EcoRev'. Revue Critique d'Écologie Politique*, 21 (2005-2006 udazkena-negua). Disponible en castellano en <<http://www.ecopolitica.org/>>.
- VIVERET, Patrick (2002): *Reconsidérer la richesse*, París, Secrétariat d'État à l'Économie Solidaire.
- WALLERSTEIN, Immanuel (2002): *La crisis estructural del capitalismo*, Mexico, Contrahistorias.
- ZIN, Jean: *Ecologie révolutionnaire*, <<http://jean-zin.fr/ecorevo/>>.

Oharrak

1. Kanadan (1886 eta 1887), Australian (1886), Zeelanda Berria (1894), Hegoafrikan (1898), Argentinan (1901) eta abar.
2. Gobernu federalak Erosion Soil Service agentzia sortu zuen.
3. Azterketa horien ondorioz, Georgescu-Roegen-ek «laugarren lege termodinamikoa» ezarri zuen. Horren arabera, materia, energia bezala, entropiaren menpe dago: «Matter matters too». Lege horren arabera, materia ere modu atzeraezinean degradatzen da eta ez da erabat birziklagarria.
4. Amerikar estatistikaria, matematikaria eta ekologiaren teorialaria (1880-1949), Alfred Lotka aitzindaria izan zen ekonomiaren ikuspegi biofisikoan eta *endosomatiko* eta *exosomatiko* kontzeptuak sortu zituen. Lotkak *exosomatiko* kontzeptua proposatu zuen biosferaren parte den gizakiaren eboluzio tekniko bizkortua izendatzeko. Ikus, adibidez, *Elements of Mathematical Biology* (1926; reed. 1956).
5. Minerologo eta geokimikari errusiar-ukrainarra (1863-1945), Vladimir Vernadsky-k *noosfera* kontzeptua landu zuen. Halaber, ekologia biosferaren zientzia gisa definitu zuen. Ikus, adibidez, *Biosfera* (1997; ed. orij. 1926).
6. Zehazki, *Torrey Canyon* en hondoratzea 1967ko martxoan, Santa Barbarako (Kalifornia) marea beltza 1969ko urtarrilean eta Japonen merkurio kutsadurak eragindako Minamata gaixotasuna aipa genitzake.
7. Karga ahalmena ingurune jakin batek, eragin negatibo nabarmenik izan gabe, jasan dezakeen biztanle kopurua da. Iraunkortasun ahalmena denboran zehar alda daiteke, hainbat faktoreren arabera: elikagai kantitatea, habitata, ura eta funtsezko beste zenbait azpiegitura.
8. Brundtland Txostenak ere «hazkunde aro berri baten, hazkunde biziaren» aldeko apustua egiten jarraitzen du, eta ez du lehentasunik ezartzen ekonomia, gizartea eta ingurumenaren artean. Horregatik harrapakin erraza bihurtu da boterea duten indar politiko eta komertzialentzat («garapen jasangarritik» «hazkunde jasangarrira» eta beste oximoron askotara igaro gara).
9. Ikus, adibidez, José Manuel Naredo, *Las raíces económicas del deterioro ecológico y social. Más allá de los dogmas*, Madrid, Siglo XXI de España, 2007.
10. «Ekologia» hitza Ernst Haeckel biologoak *Organismoaren morfologia orokorra* (1866) lanean erabili zuen lehen aldiz. Alemanezko *Ökologie* hitzaren itzulpena, *oikos* (etxea) eta *logos* (azterketa) grezierazko hitzek osatzen dute, hau da, «etxeen azterketa» esan nahi du. Espezie bateko norbanakoen, espezie horren jarduera antolatua den eta jarduera horren baldintza eta emaitza den, espeziearen bizi baldintza den ingurunearen arteko hiruko harremana aztertzen duen zientzia da.
11. 1973an, Ingalaterrako Green Party delakoa da European sortutako lehen alderdia. 1979an Daniel Brélaz parlamentu federal bateko lehen diputatu berdea bilakatu zen (Suitza).
12. Hauteskunde kanpainan telebistan egin zuen agerpena helbide honetan ikus daiteke: <http://www.ina.fr/archivespour tous/index.php?vue=notice&from=fulltext&full=ren%E9+dumont+verre+d%27eau&num_notice=1&total_notices=1>.

13. Ikus Heinrich Böll fundazioa, egoitzak mundu osoan dituen.
14. Wolfgang Prossinger-ek *Der Taggespiegel* aldizkarian argitaratutako artikulu batean erabilitako esapidea: «Wie Pazifisten, Komunisten, Vogelschützer und Punks 1980 um eine Parteigründung stritten: die Geburt der Grünen aus dem Chaos», 13/01/05.
15. Munduko Berdeek idazkaritza eta finantza baliabide iraunkorrak izatea erabaki zuten.
16. Amerikako mugimendu berdea 1980ko hamarkadaren hasieran sortu zen eta maila lokalean indar handia baina artikulazio federal maila urria du. 1970eko hamarkadatik aurrera mugimendu komunisten borrokari esker ezaguna den Ralf Nader abokatu eta ekintzaileak eragin handia izan du. Keniako Green Belt Movement-eko diputatu izan zen Wangari Maathai Nobel saridunaren bultzadaz, ekologia Afrikan finkatzen saiatzen ari da eta 2006an Gazte Berde Afrikarren Federazioa sortu zen. Asian, berdeak pixkanaka bidea egiten ari dira: 2007an ordezkariak lokala lortu zuten Japonen eta Txinan bertan ere badute Alderdi Berdea —legez kanpo bada ere—.
17. 1984an Europako Alderdi Berdeen Koordinakundea jarri zen abian. 1993an Europako Alderdi Berdeen Federazioa bihurtu zen eta 2004an, Erroman, Europako Alderdi Berdea sortu zen.
18. Ikus Europako Gazte Berdeen Federazioaren webgunea: <<http://www.fyeg.org/>>.
19. Berriki Europar Fundazio Berdea sortu izana horren adierazle da.

Oharra: Testu hau originalaren bertsio laburtua da. *Ecología política: génesis, teoría y praxis de la ideología verde*. Bilbo, Bakeaz, 2008 (Cuadernos Bakeaz 85). © Florent Marcellesi 2008; © Bakeaz 2008. Lanaren helbide elektronikoa: <http://www.bakeaz.org/es/publicaciones/mostrar/102-ecologia-politic>

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Taloez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGO A.S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko solik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: ____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia

"Kirolaz badakit"
mahai-jolasa

"888 txiste"
liburua

"Txoriak txori"
lamina

%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2010eko prezioak

138 € Hego Euskal Herrian
168 € Ipar Euskal Herrian

argia



Iñaki Barcena*

Ekologia politikoa ideologia gisa

(Florent Marcellesiren artikuluari egindako kritika)

Hauxe da duela hainbat urtetatik hona euskal lurretan ezarri den frantziar ingeniari eta hirigile gazteak testuaren hasieran botatzen duen galdera: ekologia politikoa zenbateraino da ideologia berri baten sorrera? Andrew Dobson-ek “Pentsamendu Berdea”z irekitako bideari jarraituz, ideologia bat zentzu politologikoan eta globalean existitzen dela baieztatzeko hainbat elementu behar dituela dio: gizartearen deskribapen analitiko koherentea, ideologia horren ideia nagusietan oinarrituta errebindikatzen den gizarteak nolakoa izan behar duen proposatzea edo deskribatzea, eta hori gauzatzeko ekintza politikoaren programa, mahai gainean jarritako ideal hori lortzearen burutu behar den aldaketa soziala abiatzeko.

Ez dago esan beharrik, gure iritziz, 1960ko hamarkadatik hona, mugimendu sozial berriak, bereziki feminismoa eta ekologismoa, kritika, aginduzko proposamena eta, kasu batean, patriarkatua eta hizpide dugun kasuan, ingurumenaren eta gizartearen krisialdia gainditzea ahalbidetuko duten programa eraldatzailea bateratzen dituen diskurtsoa osatzeko gai izan direla.

Ideologia berria murrizteko saiakeran, Marcellesik digresio labur bat egiten du, pentsamolde ekologistan eragin handiena izan duten egileei aipamen eginez. Argi bereizten ditu ekologia (ekosistemak aztertzen dituen zientzia) eta ekologismo soziopolitikoa, hau da, ingurumenaren krisialdia sortu duen ekoizpen eta kontsumo sistema gainditzea proposatzen duen mugimendu soziala. Eta hainbat idazle eta zientzialariri erreparatzen die (Rachel Carson, Ivan Illich, Nicholas Georgescu-Roegen, Vladimir Vernadsky, René Dumont, André Gorz eta abar), ekologismoaren genesi erreferentziala eta jarraibide ideologikoa markatu duten ideia eta diskurtsoetako batzuk nabarmenduz.

Halaber, 1968an sortutako mobilizazio zikloa ere du hizpide, pentsatzeko eta egiteko modu berri bat eratu zuen inflexio puntua adierazteko. Eredu berri hori ohiko ereduetatik bereizten da eta bakartzat ezarri nahi den mundu ideologiko bipolarraren (Washington ala Mosku, NATO ala Varsoviako Ituna) kritika politikoa egiten du.

Ondoren, bere ustez pentsatzeko eta mundua ikusteko modu berri honen ideia nagusiak direnak

deskribatzen saiatzen da: antiproduktibismoa, *sor-pasoa*, (bere hitzetan) kapitalismo-sozialismo dialektika gaudituko duen zentzuaren bilaketa eta erradikaltasun demokratikoa. A. Gorzen hitzak erabiliz, gizarte eta ingurumen krisialdia neurritz kanpoko pilaketa, errentagarritasuna maximizatzea eta oreka ekologikoak hausten dituen teknika erabiltzea eskatzen duen ekoizpen ereduaren ondorioz sortu da. Dobsonen bideari jarraiki, ingurumenaren aldeko mugimendua, hau da, gobernu gehienek eta ohiko alderdi politikoez arazo ekologikoetara hurbiltzeko erabiltzen duten bide administratiboa, eta mundu jasangarria lortu ahal izateko muturreko aldaketak proposatzen dituen ekologismoa bereizten ditu. Eta, ondoren, ekologia politikoa demokrazia lokal eta parte-hartzailearen aldeko, Murray Bookchin-ek *konpromiso soziala* esaten zion horretan oinarritutako eredu deszentralizatuaren aldeko apustua ere badela dio, gizartean ekosistema naturaletako elkar-lana eta elkarreragina nagusi izan daitezten.

Teoriatik praktikarako jauzian, alderdi berdeak aukeratzen ditu ekologia politikoen ideiak eremu politiko instituzionalean nola sartu diren azaltzeko adierazle garbi gisa. Eta nire ustez oker dago. Argi dago alderdi berdeak funtsezko elementuak izan direla ideologia berdea hedatzeko eta zabaltzeko, eta hauteskundearen eta politikaren eremuan nahiz instituzioen esparruan agertu izanak ingurumenari buruzko gaiak agenda politiko eta mediatikoetan sartu dituela. Baina, alderdi hauek Europako zenbait naziotan (Alemanian, Belgikan, Frantzia, Finlandian...) edo Ozeanian duten toki garrantzitsua albo batera utzita, munduko gainerako herrialdeetan, eta aipatutako herrialdeetan ere bai, noski, praxi ekologistaren protagonista nagusia mugimendu ekologista da eta diskurtsoa nonahi sortzen diren ingurumen gatazkatan egunero borrokan ari diren pertsonen daramate. Ekologismoaren praxi ideologikoa alderdi berdeetara mugatzen du eta alderdi hauek kalearen eta instituzioen arteko "transmisio-uhaltzat" jotzen ditu. Ondorioz, ez du ulertzen, zenbait kasutan hala gertatu den arren, ezin dela orokortu eta, bestalde, alderdien aurkako alderdiaren proiektu erreferentzia hark, 30 urtetako esperientzia aberatsaren ondoren, sistema demokratiko liberalaren gainerako alderdien gero eta antz handiagoa duela. Marcellesi kontraesan hauetaz jabetzen da eta testuan adierazten ditu, baina, hala eta guztiz ere, alderdi berdeak ekologis-

moaren adierazpen politiko-ideologiko nagusitzat jotzen ditu eta, nire ustez, halakorik ez da gertatzen.

Modu erredukzionistan borroka ideologikoa soilik ezker-eskuin edo demokrazia-totalitarismoa parámetroetara mugatzen duen eskema bidimentsionala gaudituzko azalpenak ematen saiatzen da eta hori eskertzekoa da. Produktibismo-antiproduktibismo ardatzak ekologismoa, proposamen ideologiko gisa, non kokatzen den jakiteko balio du, baina, nire ustez, ahalegin horrek emaitza hobekak izango lituzke beste ardatz batzuk ere aintzat hartu izan balitu (erlijiosoa, nazionala, jeneroarena...), proposamen ideologiko berdea argitzen lagunduko luketelako.

Bestalde, berdeak ezkertiarak ote diren ala ez betiko eztabaidari egiten dion hurbilketa eta ekososzialismoaren erreferentzia interesgarriak dira. Egia da ekososzialismoa beste korrante bat baino ez dela, ideologia ekologistaren barruko mikro-ideologia bat, Espainiako Estatuan nahiz munduko beste herrialde batzuetan nahikoa indar lortu duena. Hala ere, berdeak "ez ezkerreara, ez eskuinera, aurrera baizik" leloaren aldekoak izan arren, sozialismoaren eta liberalismoaren mendetako norgehiagokak ez ditu berdinak egiten, faxismoa eta stalinismoa berdinak ez diren moduan. Eguneroko errealitate soziopolitikoan, diskurtso teorikoaz edo ideologikoz haratago, berdeek, alderdi politiko gisa, eta ekologismoak, mugimendu sozial gisa, aukeratu behar dute: alternatiba antikapitalistak ala ekoizpen eta kontsumo sistema bera. Zorionez, munduko mugimendu berdeko kide gehienak lehenengo aukeraren alde daudela uste dut.

* *EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea*

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

(ARGIAko 2.216. zenbakiarekin banatua, 2010eko urtarrilaren 31n)